GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

BABESLETZA KOMUNITARIOKO PROGRAMA BAT GARATZEKO OINARRIZKO GIDA

AUZOLANA II-KO ESPERIENTZIA
EUSKO JAURLARITZA

EUSKO JAURLARITZA
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

ZER DA BABESLETZA KOMUNITARIOA?

Nazioarteko babesa behar duten pertsonentzako harrera- eta laguntza-ekimena

Proiektu komunitario zibiko eta solidarioa, sare sozialen lanean oinarritua

Asiloaren, babeslekuaren eta, oro har, giza eskubideen errealitateaz azaltzeko eta sentsibilizatzeko tresna

Komunitatea eraikitzeko tresna, nazioarteko babesa behar duten pertsona iritsi berriak barne.

OINARRIZKO PRINTZIPIOAK



AUZOLANA II PROIEKTU PILOTUAREN BEREZKO EZAUGARRIAK

Babesletza komunitarioa, estatuko berrasentamendu-programaren parte gisa

- Herrialde gehienetan, babesletza komunitarioa estatuko berrasentamendu-sistemaren osagarria da. Kasu honetan, ekimena estatuko berrasentamendu -programaren barruan dago.

Estatuz azpiko lankidetza publiko-pribatua

- Babesletza komunitarioko ekimen gutxi dira estatuz azpiko agintaritzen zuzeneko partaidetza dutenak.

Eusko Jaurlaritzaren bultzada, koordinazioa eta jarraipena

- Agintaritzen inplikazio-maila aldatu egiten da programa batetik bestera. Kanadaren kasuan, gobernu federalak proiektuak garatuko dituzten erakundeak babesten ditu, baina ez du zuzenean parte hartzen, funtzionamendu egokia bermatzetik harago.



AUZOLANA II PROIEKTU PILOTUAREN BEREZKO EZAUGARRIAK (&2)

Finantzaketa mistoa

- Babesletza komunitarioko proiektu gehienetan, baliabideak entitate eta/edo herritar boluntarioen taldeek jartzen dituzte. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen du ekonomikoki, eta beste laguntza-baliabide batzuk ere jartzen ditu.

Entitateak aldez aurretik hautatzea

- Ekimen batzuetan, entitate parte-hartzaileen hautaketa geroago egiten da, entitateok parte hartzeko interesa adierazi ondoren.

Lagun egiteko prozesu luzeagoa

- Babesletza komunitarioko programen iraupen-aldiak aldatu egiten dira. Kasu honetan, bi urteko programa aukeratu da, Espainian errefuxiatuak hartzeko programa orokorra baino aldi luzeagoa hartzen duena.

BABESLETZA KOMUNITARIOKO PROIEKTU BAT INPLEMENTATZEKO IBILBIDE-ORRIA

Plangintza

- Stakeholderrak identifikatzea
- Programa diseinatzea
- Nazioarteko konexioak (GRSI)

Garapena

- Gobernantza-tresnak
- Laguntza-taldeak identifikatzea (norbanakoak edo entitateak)
- Harrera, abegi eta integratzeko/gizarteratzeko protokoloak

Inplementazioa

- Programa hastea
- Errefuxiatuei ongietorria eta harrera egitea
- Laguntzeko ekintzak

Ebaluazioa

- Taldeen autoebaluazioa eta ekintzen funtzionamendua
- Helburuak eta hobetzeko guneak identifikatzea

Ez ahaztu:
Iraunkortasuna
Moldagarritasuna

BABESLETZA KOMUNITARIOKO PROIEKTUAREN FASEAK

I. IRITSI AURRETIK

Ongietorriko **lurraldearen identifikazioa** (auzoa, udalerria)

- Udalerria, auzoa, barrutia, etab.
- Erakundeek lurraldean duten zeregina eta harremana.
- Etxebizitzaren eskuragarritasuna, baina baita etxebizitzaren prezioa ere

Lankidetzan aritu beharreko **erakundeak** identifikatzea:

- Konpromisoa
- Baliabide eta gaitasun nahikoak

Hobe da gizarte-oinarri sendoa izatea.

- Harago (baina ahaztu gabe), izaera sozial eta/edo asistentzialeko erakundeak!

Babesleen taldea hautatzea eta sortzea

- Profilen eta adinen heterogeneotasuna bermatzea
  - Sexuen oreka eta gutxiengoetako edo jatorri migratzaileko pertsonen parte-hartzea erraztea
- Ahal dela, harrera-lurraldean bizi direnak
- Jatorrizko hizkuntzen ezagutza balio erantsia da
- Irauteko konpromisoa (eta gaitasun-baldintzak, egoki iritziz gero).

I. IRITSI AURRETIK (2)

Boluntarioei laguntzeko gida egiteaz hausnartzea.

Boluntarioak **trebatzea**

- Babesletza komunitarioari eta harrerari buruzko informazioa
- Kulturarteko gaitasunei buruzko oinarrizko prestakuntza
- Babesletzaren onuradunei buruzko informazioa (ahal dela eta intimitaterako eta datuen babeserako eskubidea urratu gabe)

Zerbitzuen horniduraren identifikazioa

- Dokumentazioaren eta laguntza burokratikoaren arloa
- Hezkuntza arloa
    - Hizkuntza trebakuntza
- Osasun arloa
    - Osasun mentalerako arreta sartzea
- • Lanbide-heziketaren eta lanaren arloa

Tokiko administrazioarekin eta lurraldeko gizarte-erakundeekin **loturak aztertzea:**

- Onuradunak udal-zerbitzuen eta -jardueren sare osoan sartzen direla eta parte hartzen dutela bermatzeko.
- Giza eskubideei, asiloari eta babeslekuari buruzko sentsibilizazio-ekintzak
- Diskriminazioaren, xenofobiaren eta gorroto-diskurtsoen aurka borrokatzeko ekintzak.

I. IRITSI AURRETIK (3)

Jatorrian (onuradunentzat)

Babesletza komunitarioari eta harrerari buruzko informazioa

- Aurretiko orientazio-ikastaroen esparruan
- Informazio hori egokia izan behar da babesletza komunitarioan parte hartzen duten pertsonentzat, euren balio bereizgarria nabarmenduz.

Helmugako **lurraldeari buruzko informazioa**

- Informazio hori helmugara egokitu behar da, testuingurua hobeto ezagutzen dutela bermatzeko
- Babesletza-taldeekin lehen harremana izatea erraztea, ahal denean.

Oinarrizko **hizkuntza-prestakuntza**

- Ahal denean, hizkuntza-prestakuntzari ekin albait lasterren.

Lurraldeari buruzko bideoak edo informazio-irudiak eska dakizkieke babesleei

I. IRITSI AURRETIK (&4)

Babesletza komunitarioko proiektuaren **gobernantza-tresnak sortzea**

- Administrazio sustatzailearen eta administrazio zentralaren artean
  - Elkar ulertzeko memoranduma sinatzea
  - Jarraipen-batzordea
- Administrazio sustatzailearen eta erakunde parte-hartzaileen artean
  - Lankidetza-hitzarmenak sinatzea
  - Lan-mahaia, jarraipen-taldea, etab.
- Parte hartzen duten erakundeen eta boluntario-taldeen artean
  - Barnekoa
  - Barnekoa, boluntarioen taldeentzat
  - Laguntza-plataformak
- Jarraipen-adierazleak egitea, proiektu osoa eta esperientzia espezifikoak ebaluatzeko.

II. IRISTEA ETA LEHEN HARRERA

Arreta berezia jarri behar zaio erabilgarri dauden **pisuen eskasiari!**

Iritsiera

- Itzultzaileak (profesionala) lagundutako ongietorri-batzordea

Lehen harrera

- Boluntario taldearen laguntza- eta konpainia-lana martxan jartzea
- Etxebizitza eskuratzea
- Oinarrizko zerbitzuak eskuratzea
  - Hezkuntza
  - Osasungintza
  - Hizkuntza trebakuntza
- Lurraldean dauden zerbitzu publikoen sistemarekin komunikazioa bermatzea (matrikula bizia, ibilbide profesionala, genero-berdintasuna, etab.)

II. IRISTEA ETA LEHEN HARRERA (2)

Beharrezkoak diren **beste zerbitzu batzuk** identifikatzea

- Sarbide telematikoa eta teknologia berrien erabileran laguntzea ezinbestekoa bihurtu da COVID-19 pandemiaren garaian, adibidez.
- Arreta osasun mentalari

Etorri berriekin **jarduerak** antolatzea

- Udalerria bisitatzea; txangoak, topaketak, etab.
- Ahal den neurrian, auzoko edo udalerriko jardueretan parte hartzea.

II. IRISTEA ETA LEHEN HARRERA (3)

Disfuntzioak detektatzeko **jarraipen- eta zuzenketa-mekanismoak** ezartzea

- Mekanismo horiek balio behar dute, halaber, disfuntzio puntualak edo egiturazko disfuntzioak bereizteko, eta horiek zuzendu behar dira proiektuan.

Elkarrizketarako eta ezagutzak transferitzeko espazioak ezartzea

- Beharrezkoa izan daiteke espazioak ezartzea laguntza-taldeen artean itxaropenak, zalantzak eta bestelako gogoetak partekatzeko.
- Esperientzia pilotuko laguntza-taldeek hurrengo laguntza-taldeak edo beste lurralde batzuetakoak aberasten eta sustatzen lagun dezakete.

II. IRISTEA ETA LEHEN HARRERA (&4)



III. INTEGRAZIOA ETA GIZARTERATZEA

Iritsi berrien **sare soziala zabaltzea eta indartzea**

- Babesleez eta erakundeez harago
- Interakzioa eta parte-hartzea erraztea, interesen arabera (guraso-elkarteak, kirolak, kultura-zerbitzuak, etab.)
- Inguruabarrak edo interesak partekatzen dituzten pertsona eta erakundeekin kontaktua erraztea (baina ez bakarrik nazionalitatean edo pertenentzia kulturalean oinarrituta)
- Udalerriaz haraindiko elkarrekintza sustatzea

Autonomia pertsonala indartzea

- Arreta berezia jarri behar zaie emakumeei eta neskei, euren autonomia pertsonala bermatzeko.
- Arreta berezia eta errefortzua zailtasunak dituzten pertsonentzat (dibertsitate funtzionala, etab.)

III. INTEGRAZIOA ETA GIZARTERATZEA (2)

Proiektuaren ondoren autonomia bermatzea

- Jarduera ekonomiko eta profesionaletarako laguntza (lurraldean dauden orientazio- eta laguntza-zerbitzuen bidez)
- Proiektuaren amaiera laguntza osagarriak eskuratzeko aukerarekin lotzea, beharrezkoak izanez gero (BGDS, DSBE, etab.).

Errefuxiatuen ekarpenari balioa ematea

- Helmugako lurraldeko espazio sozial eta komunitarioetan
- Eskoletan eta beste prestakuntza-gune batzuetan
- Proiektuaren jarraipenean.

III. INTEGRAZIOA ETA GIZARTERATZEA (&3)

Ebaluatzea, ebaluatzea eta ebaluatzea

- Proiektuaren **ebaluazio jarraitua** egitea, lurraldean dagoeneko egon daitezkeen integrazio- eta gizarteratze-adierazleen ildotik.
- Azken ebaluazioa egitea, hurrengo edizioetan ikuspegi diakronikoa edo lurralde-konparazioko ikuspegia gehitzeko.
- Boluntarioen taldeen autoebaluazioa erraztea (AMIA).
- Indarguneak eta hobetzeko espazioak identifikatzea, bai eta partekatzeko ikasitako ikasgaiak ere.

Bizitzen jarri ondoren, eta bizi diren lurraldearen zati gisa, onuradunek proiektuan parte hartuz aberastu dezakete proiektua!

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES